

## HorKonpon



Partaidetza eta  
gizarte ehuna



Komunikazioa  
eta informazioa

## HorKonpon

---

HorKonpon lantegi ireki bat da, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun tresnak konpontzea eta berrerabiltzea ardatz dituena. Hau du helburu: herritarrei autonomoagoak izaten (*do it yourself*) eta taldean lan egiten (*do it together*) laguntzea. Horretarako, adin eta gaitasun guztietako pertsonak elkartu nahi ditu, elkarrengandik ikas dezaten, ezagutza tekniko eta teknologikoak partekatuz.

### 1. Erakunde sustatzaileak

DSS2016 eta Ubik —Tabakalerako sorkuntza liburutegia— erakundeek sortu zuten proiektua, eta horretan lan egiten jarraitzen du Tabakalerak.

### 2. Erakunde mota

Publikoa

### 3. Xede taldea

Herritarrak, oro har Hala ere, adinekoek garrantzi berezia dute, saioetara eramaten diren objektuak nola konpondu ez dakitenei, normalean gazteenei, beren ezagutzak transmititzeko.

### 4. Lurralde eremua

Tokikoa

### 5. Egoera

Amaituta. Hasiera data: 2015eko iraila

### 6. Etiketak

Partaidetza, belaunaldiartekoa, Gipuzkoa, boluntarioak

## 7. Helburuak

Herritarrei autonomoagoak izaten (*do it yourself*) eta taldean lan egiten (*do it together*) laguntzea, adinekoen (gizon nahiz emakumeen) ezagutzaren transmisioa abiapuntu hartuta. Konplizitate oneak sortzea ez dakitenean eta beren ezagutza transmititzen dutenen artean, eta, aldi berean, belaunaldiarteko harreman oso aberasgarriak sortzea.

## 8. Metodologia

Irratiak, entxufeak, jostailuak, kremaierak edo beste edozein objektu konpontzeko gai den edonor dago gonbidatuta HorKonponek Ubiken, Tabakalerako sorkuntza liburutegian, prestatu duen gunera. Era berean, herritarrei gonbita egiten zaie ganbaran gordetako etxetresna elektrikoak eta tresnak berreskuratu eta liburutegira eramateko, guztion laguntzarekin konpontzeko.

HorKonponen parte hartzeko, beharrezkoa da gutxienez bi baldintza hauetako bat betetzea: eskulanen esparruan zerbait irakasteko edo ikasteko gogoia izatea. Azken finean, ekimenaren asmoa da ahalik eta trebetasun eta ezagutza gehien partekatzea, arotzeriako, jostaintzako, elektrizitateko, mekanikako eta aterkiak konpontzeko lanak egiteko, besteak beste.

Olatu Talkaren programazioaren barruan maiatzaren 31n eginiko lehen saioak izan zuen arrakasta dela eta, lantegia hil bakoitzeko bigarren larunbatean errepikatu da Espacio 2016 gunean, Donostitruk ekimenarekin batera, eta 2016ko urtarriletik Tabakalerako instalazioetan jarraitu du orain arte. 2018ko maiatzean ekimenak hiru urte bete ditu etenik gabe saioak egiten (hil bakoitzeko bigarren larunbatean, baita udan ere).

HorKonpon diseinatzeko orduan, tokiko eta nazioarteko antzeko beste eredu batzuk hartu ziren erreferentziatzat, hala nola duela urte batzuk Holandan sortutako ekimena, orain beste herrialde batzuetara hedatu dena, eta, gertuago, Bergarako KafeKonpon elkartearena.

## 9. Alderdi berritzaileak

HorKonpon berritzailea da bere lan antolamenduari eta metodologiari dagokienez. Berritzailea da kokalekua, liburutegi batean egiten baita. Horrela, herritarrek eta parte hartzaileek ezagutza transmititzeko beste aukera batzuk ezagutuko dituzte, «liburuetatik haratago» eta *maker* edo egilearen ikuspegitik, nahiz eta termino hori, normalean, publiko gazteagoekin lotzen den.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Nahitaezko ebaluazio irizpidea da hilez hil HorKonponekin jarraitzeko gai izatea, boluntarioen lanari esker. Horiek gabe, HorKonponek ez luke funtzionatuko. Saioz

saio transmititzen den ezagutza oso baliotsua da, konpontzen diren objektuen kopurua gorabehera.

HorKonpon topagune bat da pertsona askorentzat, baita elkartzeko aitzakia ere. Talde bat sortu da lehen elkar ezagutzen ez zuen eta gaur egun proiektu baten inguruan batuta jarraitzen duen jendearekin.

## 11.Eranskinak eta estekak

HorKonponen saioen berri ematen duen Tabakaleraren webgunea:

[HorKonpon | Tabakalera | Tabakalera](#)

Bideoak:

<https://vimeo.com/154561089>

<https://vimeo.com/165579665>